



Kide agurgarriak,

Dakizuen, joan den ekainaren 21ean Ezohiko Asanblada Nagusian bildu ginen Gasteizen. Jakinarazi zen ez zela hautagai-zerrendarik aurkeztu Elkargoko egungo Batzordea berritzeko hauteskundeetarako, eta, hori dela eta, Batzordeak jardunean ekingo diola lanari berriro ere hauteskundeetarako deialdia egin artean.

Asanbladak egitate honi buruzko hausnarketa egitea erabaki zuen, eta Elkargoak jarraitutako prozesua jakitera ematea, eskuartean ditugun eta epe ertaineko etorkizunean landuko diren gaiak zein diren esanez.

Lanbide gaztea dugu, mugarri handietara iritsi dena: lanbide elkargo bat izatea eta lanbide aitortpena lortu dugu –unibertsitate prestakuntza eta Elkargoaren bitartez-. Hala ere, gure lanbidea egiten ari da oraindik. Partaide garenok lanbide hau hazten joan dadin nahi dugu: badaude gauzak esateko, hobetzeko, eta horretan arituko gara.

Prozesua ezagutarazteko ideia hartuta: nondik gatozen, non gauden eta nora joan nahi dugun; irailan lurralde bakoitzeko elkargokideei dei egingo zaie prozesu horren berri emateko saio batera.

Orain garena gure esku dago, eta zer izan nahi dugun erabakitzea ere bai.

## GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



GHEKKn Caceresen, ekainaren 6, 7 eta 8an egin du bere 2014ko Ohiko Batzar Nagusia. Bertan izan ziren gure Elkargoko batzarkide bat –GHEKN-n egungo Komunikazio Batzarkide kargua duena- eta presidentea.

Urteko Asanbladako ohiko gaiez gain, Kontseiluko Gobernu Batzorde berria aukeratu da, aurrekoen hautagaitza epea amaitu baita. Oraingoan, gure Elkargoak ez du Kontseiluko Batzordean kargurik izango, Komunikazio Taldearen ardura ez izatea eskatu ostean.

Gure Elkargoaren asmoa da Deontologia Batzordea dinamizatzea eta Batzordearekin koordinazioan arituko da horretarako.

Batzar berriak honako zereginak izango ditu:

- ♦ Gizarte Hezkuntzako VII Biltzarra Kordoban, 2016an.
- ♦ Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Jasangarrtasun Legearen jarraipena.
- ♦ Lanbide Zerbitzu eta Elkargoen Legearen aurreproiektua.

## GHEE-CESPVREN BERRIAK

- ◆ **Urriak 2 Gizarte Hezkuntzaren Nazioarteko Eguna** Elkargoak, Educa-  
blogeak eta Deustoko Unibertsitateko Gizarte Hezkuntzarako Zuzendaritzak  
gizarte hezitzaileen egungo egoera eta Gizarte Hezkuntzaren etorkizunerako  
erronkak zeintzuk dira analizatzea proposatuko dizkiete. Gizarte Hezkuntza  
hainbat esparrutan herritarren beharizanei eta euskabideei erantzuteko Gi-  
zarte Hezkuntzaren eta profesionalen lehentasunak ere zeintzuk diren azter-  
tuko dira. Jardunaldia Deustoko Unibertsitatean goizez egingo da. Ekitaldia-  
ren berri zehatzagoak bialduko dizkizuegu.
- ◆ **Gizarte babesik gabe haur eta nerabeentzako egoitza harrerako ba-  
liabideak arautzen dituen 131/2008ko Dekretuaren arabera** halako  
zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeek gizarte hezitzaileen lanpostuekiko  
dekretua bete dezaten, GHEE-CEESPVek araua hautsi dela dakienean, Admi-  
nistrazioari eta Arartekoari jakinarazten die.
- ◆ **Pere Tarres Fundazioarekin Hitzarmena.** Ramon Lull Unibetsitateko Gi-  
zarte Hezkuntza eta Gizarte Langintzako Pere Tarrés Fakultatearen zerbit-  
zuak eskaintzeko Elkargoak Fudazioarekin hitzarmena sinatu zuen. Horren bi-  
tartez gure Elkargoaren kideek [Graduondoko](#) (unibertsitate masterrak, Ra-  
mon Lulleko masterrak, unibertsitate espezializazio diplomak, unibertsitate  
aditua, zentruko ziurtargiriak, unibertsitate-hedapen ikastaroak) prestakunt-  
za ikastaroetan %10aren merkatzea euskaratu ahalko dute, baita [Gizarte  
Formazio](#) ataleko ikastaroetan zuzeneko eta e-learning proposamenetan.  
Fundazioak Elkargoko kideen seme-alabei umeentzako udalekuetako publiko-  
entzako prezioa %5eko merakatuko die. <http://www.peretarres.org>
- ◆ **Defentsa Juridiko Asegurua** Ekainaren 1ean DAS aseguru konpainiarekin  
[Denfentsa Juridiko poliza](#) berriztu zen. Poliza honek altan dauden elkargoki-  
de gustioi lanbide zereginetan edozein gertakaria dela eta oinarrizko lege la-  
guntza izango du. Abustuan ostiralero abokatuak ematen duen aholku juridi-  
ko zerbitzua egongo ez denez, elkargokide bakoitzari emailez aholku juridi-  
koak jasotzeko DAS konpainiaren telefono zenbakia bialduko diegu, kontsul-  
tak egiteko edo gatazka juridiko susmoa izan ahal den bertara jotzeko.
- ◆ **Lanbiderako Erantzunkizun Zibilaren Asegurua** Elkargoak ZURICH kon-  
painiarekin 2013ko urrian, urte betez, poliza berriztu du. Aseguratuak berak  
edo subsidiario gisa eragindako arduragatik egokituko zaio aseguru. Hezit-  
zaileak berak edo bere zaintzapean daudenak GIZARTE HEZITZAILEEN lanbi-  
de jarduetan eragindako kalte materialak, pertsonalak eta ondoriozko kal-  
teagatik ere indarrean dagoen Polizan izena eman dutenei erantzunkizun zi-  
bila duten elkargokidei indemnizazioen ordainketa bermatuko zaie.

## LANBIDEARIKO INFORMAZIOA

### GIZARTE HEZITZAILEAK PERTSONAMENPEKOAK ARTATZEN GIZARTE ERAKUNDEETAN

Gizarte Hezitzaileek aukera izan dute, unibertsitate titulazioa hartuta, menpekotasuna duten pertsonak (minusbaliotasun psikikoak, adineko pertsonak) artatzeko (etxebizitzetan, eguneko zentroetan). Etorkizunean, hori egiten jarraitu ahalko dute, baina aurrekoaz gain, ondoren adieraziko ditugun titulazio edo agirietakoren bat eduki beharko dute:

1368/2007 Errege Dekretua oinarri hartuta, prozesu bati ekin zaio menpekoak artatzen lanean jardun eta etxebizitzetako begirale, hezitzaile, zaintzaile, gerokultore edo antzeko lanbide kategoriako langileek honako titulazio hauek izan ditzaten:

- ♦ Erizaintzako Zaintza Osagarrien Teknikaria (Erdi Mailako Heziketa Zikloa). Lanbide Familia: Osasungintza) edo bere aurrekari baliokidea: Klinika Teknikari Laguntzailea.
- ♦ Osasun Artatze Teknikaria 496/2003 ED (2003/05/24 EAO)
- ♦ Menpekotasun Egoeran dauden Pertsonak Gizarte Erakundeetan Gizarte eta Osasun Mailan Artatzeko Profesionaltasun Egiatagiria. 1379/2008 ED (BOE 2008/09/09)

Hasiera batean, araudiak adierazten du 2015eko urtarrilaren 1erako profesional guztiek eduki beharko dutela adierazitako prestakuntza, baina hori lortzea zaila izango da, administrazio eskudunek ez dutelako prestakuntza-baliabiderik eskuragarri jarr; beraz, segur aski epea luzatu egingo da.

Arestian aipatutako titulaziorik ez duten Gizarte Hezkuntzako diplomatu eta gradudunek bi modu izango dituzte artatze zentro hauetan lan egiteko gaitzea lortzeko, Gizarte eta Kultur Zerbitzuak Prestakuntza Zikloko (SSCS0208 Kodea) familiakoa den Gizarte Erakundeetan Gizarte eta Osasun Artatzean Profesionaltasun Agiriaren bitartez.

A.- 450 orduko ikastaroa eginez. Ordu banaketa nolakoa den, zentro batzuetan, lau hilabete eta erdian, eguneroko ikastaroetan, praktikak barnean hartuta, osatu daiteke. [Menpekotasun Egoeran dauden Pertsonak Gizarte Erakundeetan Gizarte eta Osasun Mailan Artatzeko Profesionaltasun Egiatagiriari](#) buruzko informazioa.

Une honetan Euskadin Menpekotasun Egoeran dauden Pertsonak Gizarte Erakundeetan Gizarte eta Osasun Mailan Artatzeko Profesionaltasun Egiatagiria [LANBIDEn web orrian](#) aurki daiteke. Bertan adierazten dira osorik edo moduluka non ematen den.

B.- Epaimahai lan eskarmentua egiaztatuz, eta, horrela, profesionaltasun egiaztatzea zuzenean lortuz, edo, modulu jakin batzuetako ikastaroekin osatuz. Modulu horiek zein izango diren epaimahai ebaluatzaileak zehaztuko du [EHAOKo AGINDUAN](#) adierazten den bezala, ekainaren 17ko 1224/2009 EDren araudiarekin bat eginez.

Gizarte hezkuntzako unibertsitate titulua dutenek, beraz, lanean jarraitu ahalko dute adierazitako titulazio eta egiaztatzeekin.

## IRAKURTZEKO INTERESGARRIA



[ARAREKOaren Txosten Berezia. Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketa eta proposamenak.](#)

Eusko Legebiltzarreko Prisedenteari 2014ko ekainaren 25an aurkeztutakoa.



[Euskal Autonomia Erkidegoan babesgabetasun egoeran dauden haurren esku-hartzean parte hartzen duten eskolako eta gizarte zerbitzueta-ko profesionalak elkarrekiko dituzten harremanen inguruko pertzepzioak](#)

UPV-EHUK, Gipuzkoako Heziketa Kontseilarioko Konstorsorioak eta gure Elkargoak egindako ikerketa.



7 Retos para la educación social. Reinventarse como profesionales de lo social. A.Forés y A.Novella. 2013. Gedisa.

[Reseña sobre el libro](#)



Documentos del VI CONGRESO ESTATAL DE EDUCACIÓN SOCIAL "Nuevas Visiones para la Educación Social, experiencias y retos de futuro" [RES Numero 18](#)



Orientaciones para las buenas prácticas en la atención psicosocial de jóvenes y adolescentes. Resultados de un proyecto participativo con jóvenes y profesionales. Carceller-Maicas, N./ et al./ (coords.). Antropología Inf Médica, nº 14, Tarragona, Universitat Rovira i Virgili, 2013, 83 págs


[Informe Completo](#)



Zerbitzuan gizarte-ongizateko politiken eta zerbitzuen azterketan espezializatutako aldizkari bat da. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailburuordetzak sustatzen du, Eguia Careaga Fundazi-oko SIIS, Ikerketa eta Dokumentazio Zentroak egiten du eta Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren bidez argitaratzen da [ZERBITZUAN 55.Zbk](#)



Vulnerabilidad y exclusión en la infancia. Hacia un sistema de información temprana sobre la infancia en exclusión. Lázaro, I./ et al. Madrid, Unicef Comité Español, 2014, 48 págs. [Informe completo](#)



Intervención comunitaria con adolescentes y familias en riesgo. Rosa Santibañez Gruber y Ana Martínez Pampliega (Coord)2013.GRAO.

**URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN [ceespv@ceespv.org](mailto:ceespv@ceespv.org) RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.**